




ARÁNZAZU HOTELES

BILBOKO HOTEL CARLTONEKO VI ARTE LEHIAKETA 2016

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



BILBOKO HOTEL CARLTONEKO VI ARTE LEHIAKETA 2016



Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen lankidetzarekin.

Bilboko Hotel Carlton hotelak, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin batera, Hotel Carlton Arte saria emateko hirugarren deialdia egin du, arte eta kultura gazteagoa sustatzeko helburuarekin.

1. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa hau 2015/2016 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatutako ikasleei dago zuzenduta.

2. IZEN EMATEAK

Lanetan egilearen izena eta abizena adierazi behar dira. Lehiaketan parte hartzen duten lanek izenburua izan behar dute atzealdean, lanak errazago identifikatu ahal izateko (margolanaren bereizgarriren bat).

Bidimentsioko lanekin batera, egilearen UPV/EHUko ikasle txartelaren fotokopia eta 2015/16 ikasturteko matrikularen frogagiria, eta lehiaketan izena emateko orria aurkeztu behar dira; azken hori lanak entregatzeko lekuan bete ahal izango da. Biak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, kanpoan aukeratutako izenburua (lehiaketara aurkeztutako lanaren atzealdean idatzitako bera), egilearen izen-abizenak eta bere telefono zenbakia adierazita. Izena ematerakoan artelanaren irudi inprimatua (DIN A4 formatuan) ere entregatu behar da.

Lanak aurkeztu behar dira hoteleko erakusketan egongo diren moduan eta euskarri finko batean.

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko atezaintzan aurkeztu behar dira, ezarritako ordutegietan. Lana entregatutakoan, hori egiaztatzen duen ziurtagiri bat emango zaio ikasleari. Epea amaitu eta gero ez dira lanak jasoko.

3. AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko egunak 2016teko 02a, 03a eta 06a ekainaren izango dira, egun horiek barne. Ordutegia: 10etatik 13etara Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen harrera lekuan.

BILBOKO HOTEL CARLTONEKO VI ARTE LEHIAKETA 2016



4. MODALITATEA

Argitaratu gabeko eta jatorrizko *bidimentsioko lanak* bakarrik onartuko dira, eta ezin izango da beste lehiaketaren batean saritutako lanik entregatu. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Teknika eta formatua guztiz libreak izango dira. 2 x 2 metroko gehieneko tamaina.

5. GAIA

Edizio honetako gaia librea izango da.

6. EPAIMAHAIIA

Epaimahaia 5 pertsonen osatuko dute, eta Euskal Herriko Unibertsitateko, Hotel Carlton hoteleko eta kultura arloko ordezkariak izango dira.

7. LANEN AUKERAKETA

Epaimahaiak aukeratuko ditu aurkeztutako lanetatik lehiaketarako onartutakoak; eta horiekin erakusketa bat egingo dute 2016ko abuztuaren 20tik 2016teko irailaren 4ra, Bilboko Hotel Carlton hoteleko lobby-an.

8. ERAKUSKETARAKO AUKERATUTAKO ETA SARITU GABEKO LANAK JASOTZEKO EPEA (saritutakoak Hotel Carlton hotelarentzat izango dira)

Erakusketan jarritako eta SARITU GABEKO lanak jasotzeko epea 2016-09-06tik 2016-09-30era bitartekoa izango da, Arte Ederren Fakultatean. Epe hori amaitutakoan, antolatzaileak ez dira aurkeztutako lanak entregatzeaz arduratuko.

Oharra: erakusketarako aukeratu ez diren lanak irailaren 06tik azaroaren 30era bitartean batu behar izango dira. Egun hori igarotakoan, antolatzaileak ez dira aurkeztutako lanak entregatzeaz arduratuko. Ordutegia: 10etatik 13etara.

9. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Epaimahaiaren erabakia publikoa eta ezeztazina izango da, eta **irailaren 15ean** 13:30etan, ezagutaraziko da, Bilboko Hotel Carlton hotelean. Horretarako, prentsaurreko bat egingo da hoteleko instalazioetan.



BILBOKO HOTEL CARLTONEKO VI ARTE LEHIAKETA 2016



10. ERAKUSKETA

Aukeratutako eta saritutako artelanak Bilboko Hotel Carlton hoteleko lobby-an egongo dira ikusgai, 2016-08-20tik 2016-09-04ra.

11. SARIAK

Hotel Carlton hotela arduratuko da sari ekonomikoez. Hauek izango dira sariak eta zenbatekoak:

- Lehen saria: 3.000 €
- Bigarren saria: 2.000 €
- Hirugarren saria: 1.000 €

Lehen, bigarren eta hirugarren sariak irabazten dituzten lanak Hotel Carlton hotelaren ondare bihurtuko dira.

"Edizio honetan, Carlton Hotelak, deialdiaren irabazlearen laguntzarekin, artelan garailea erabiliko du 2016ko gabonetan zabalduko den postal grafiko bat burutzeko."

12. LANAK ITZULTZEA

Artelan ez aukeratuak, Arte Ederren Fakultatean jaso ahal izango dira, dagokien ziurtagiria eta egilearen identifikazioa aurkeztuta, 2016ko irailak 30 baino lehen. Une horretatik aurrera antolakuntza ez da izango lanen arduraduna.

13. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek adostasun osoz onartuko dituzte oinarri hauek eta epaimahaiak aurreikusi gabeko arazoak edo egoerak konpontzeko har ditzakeen erabakiak.

14. KONTSULTAK

 Lehiaketari buruzko edozein kontsulta egiteko:

Helbide elektronikoa: eventos@aranzazu-hoteles.com

Tel.: 946 611 724

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera sortuz gero, lehiaketaren antolatzaileek hartuko dituzte horri buruzko erabakiak, ahalik eta modurik egokienean.





Plaza Federico Moyúa, 2. 48009 - Bilbao



94 416 22 00



carlton@aranzazu-hoteles.com | www.hotelcarlton.es

